

Denonartean: itzulpengintzari soa argitaletxe baten talaiatik

UNAI PASCUAL LOYARTE

Words

Axes
After whose stroke the wood rings,
And the echoes!
Echoes traveling
Off from the center like horses.

The sap
Wells like tears, like the
Water striving
To re-establish its mirror
Over the rock

That drops and turns,
A white skull,
Eaten by weedy greens.
Years later I
Encounter them on the road—

Words dry and riderless,
The indefatigable hoof-taps.
While
From the bottom of the pool, fixed stars
Govern a life

Hitzak

Aizkorak,
kolpeaz eragiten duten egurraren txilina,
eta oihartzunak!
Oihartzunak zentrotik
ihesean, zaldiak bezala.

Izerdia
malkoak bezala jarioan, ura bezala
bere ispilua berregiteko
ahaleginean,
erorian eta biraka dabilen

harriaren gainean;
belar txarrek jandako
burezur zuria.
Hainbat urteren buruan
egin dut berriz topo haiekin bidean—

gidaririk gabeko hitz lehorrak,
apatx-hots nekaezinak.
Bitartean,
putzuaren hondotik, bizitza bat
gobernatzan dute izar finkoek

Ariel eta beste poema batzuk (Sylvia Plath)
Itzultzailea: Iñigo Astiz

Itzulpena, kultur elkarreragin bateragune gisara

Orain dela egun batzuk, aukera izan nuen Eduardo Ruiz Sosa idazle mexikar gazteak emandako hitzaldia entzuteko. Oso interesgarria izan zen, zuzenean ezagutu ahal izan genuelako literatur mexikarraren egungo egoera.

Baina bereziki interesgarria iruditu zitzaidan kontatu zuen anekdota bat. Idazle mexikarrak kontatu zigun behin solasean aritu izan zela Goran Petrović idazle serbiarrarekin, eta bi idazleek hizpide izan zutela Eduardo Ruiz Sosarengan jakin-min handia pizten zuen kontu bat: Latinoamerikako eta Serbiako literaturaren arteko lotura es-tua, hala forman nola edukian. Petrović-ek esan zion horren arrazoia zela 70eko eta 80ko hamarkadetan Latinoamerikako idazle askoren lanen itzulpenak argitaratu zituztela Serbian: Cortazar, Onetti, Rulfo, Bolaño, Borges... Horri esker, idazle serbiar batzuek, eta horien artean Goran Petrovićek berak eta Danilo Kiš-ek, Latinoamerikako literaturaren estiloa bereganatu omen zuten. Erraza izan zen antzekotasunetara iristea formari dagokionez, edukietan ere antzeko gaiak jorratzen baitzituzten bi literaturek; adibidez, lurraren, iraultzaren edo odolaren gaiak.

Nire ustez, literaturak giza ezagutzaren eta kultura partikularren edukiak biltzen ditu bere baitan. Eta literaturak, beti, arrotz baten begirada pertsonala dakarkigu. Begirada hori gure munduaz mintzo da batzuetan, eta beste batzuetan gurea ez den beste munduez, beste herri eta kultura batzuez.

Beste kulturetako idazlanak itzultzen ditugunean, kultura horiek ekartzen ditugu gurera nolabait, eta, askotan, kultura horiei buruz garaileen historiak kontatu ez digun ikuspegia ere bai. Literatura unibertsal handia gurera ekarri eta bertako aleekin liburutegi bat gure hizkuntzan osatzeko gauza izango ez bagina, bestelako herrien, bestelako kulturen eta gizakien berezitasunak galduko genituzke, haiei buruzko xehetasunak eta ñabardurak barne.

Horrek egiten du hain garrantzitsua Literatura Unibertsala bilduma, horixe da bildumaren indarra, haren ahalmena: bestea-ren begirada gurera ekartzea. Ekimen horri esker, literatura unibertsaleko izen handiko idazleen lanak aurkitu ahal ditugu euskaraz, hala liburutegietan eta liburu-dendetan nola Interneten, irakurtzeko nahiz entzuteko.

Gure argitaletxearen itzulpen-proiektuak

Gure argitaletxearen asmoa, argitaratzaile garen aldetik, euskarara literatura unibertsal horretako obra gehiago ekartzea da, eta, aldi berean, euskaldunek euskaraz irakurtzea. Erronka handi bat daukagu: euskaldunek klasikoak irakurtzea euskaraz. Baina hori egiteko bide alternatibo bati ekin diogu.

Literatura unibertsaleko izen handiko idazleen lanak eskaini nahi dizkiegu euskal irakurleei, baina idazle horien obra kanonikoak proposatu beharrean, guk kontakizun laburragoak eta ipuin irudiztatuak hautatu ditugu. Irakurtzeko errazagoak diren kontakizunak izanagatik ere eduki sakonekoak direnak euskaratzeari ekin diogu. Ezen irakurle batzuentzat erronka handiegia izan

daiteke Tolstóiren *Gerra eta Bakea* edo Austenen *Harrotasuna eta aurrejuzguak* irakurtzeari ekitea, baina ez, ordea, egile horien beraien beste idazlan laburragoak. Mendizale guztiek ez dute jotzen goimendi zailenetara, eta badira asko mendi irisgarriagoak-edo aukeratzen dituztenak. Guk uste dugu literaturan ere gailur irisgarriagoak egon behar direla, eta halakoak sortzen lagundu nahi dugu.

Eta egile handien obra txikiagoen itzulpenari ilustrazioa erantsi nahi izan diogu, bestela heltzeko zailagoak izango liratekeen irakurleengana iristeko: gazteak eta euskaraz irakurtzen hasi berri direnak. Bide horretatik jo genuen Lev Tolstóiren *Zenbat lur behar ditu gizon batek?* eta Jean Gionoren *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* argitaratzean, eta berriro joko dugu hortik Jane Austenen *Watsondarrak* argitaratuta.

Irakurketa sustatu eta hedatzeko gure asmoari jarraituta, literatura unibertsal garaikidea itzultzeari ere ekin diogu. Hori dela eta, herrialde askotara jo dugu, hala nola Japonia, Italia, Frantzia, Errumania edota Estatu Batuetara, askotariko lanak idatziak dituzten askotariko egileen bila: Kyoichi Katayama, Milena Agus, Mircea Cartarescu, Mathias Malzieu, David Vann... Egile horiek idatzita euskarara ekarri ditugun obrek badute bereizgarri bat: helduei zuzendutakoak dira, baina egokiak dira ere derrigorrezko irakurketatik harago literaturarekin beren kabuz gozatzeko erronka duten irakurle gazteagoentzat. Horrez gain, aukeratu ditugun nobelak beren herrialdeetan munta eta ospea eskuratu eta mundu zabaleko hizkuntza askotara itzultitakoak dira, eta euskaraz argitaratuz xede-hizkuntza izan dutenen

zerrenda luzeari erantsi nahi izan diogu gure hizkuntza. Haietako batzuen egileak ez dira oso ezagunak euskal irakurleen artean, baina uste dugu idazlanen kalitateak balioko duela euskaldunen artean ere ezagunagoak bilakatzeko.

Narratibaz gain, gure munduan kezka garaikide ditugun gaiei buruz egin eta saiakera kutsua duten zenbait liburu ere eman dugu argitara, gehienbat frantsesetik itzulita. Argitaratu ditugun saiakera txiki horien artean ezagunena Stéphane Hesselen *Hasserretu zaitzete!* izenekoa da. Baina harekin parekaturik doaz, beren ezaugarriengatik, Philippe Askenazy, Thomas Coutrot, André Orléan, Henri Sterdyniak eta beste hainbat ekonomialari frantsesek idatzitako *Ekonomialari harrituen manifestua*, Frantzian ekonomia liberalaren eta kontrako matxinada mugimenduaren ardatzetako bat izan dena, eta bizi dugun krisi latzaren arazoiez eta ondorioez argi hitz egiten ausartu ziren lehen lanetariko bat, Daniel de Roulet suitzarraren *Ez duzu deus ikusi Fukushiman (Fukushima mon amour)* energia nuklearraren kontrako arazoibide poetikoa eta Linna ben Mhenni-ren *Tunisian girl. Udaberri arabiarraren blogaria*.

Eta gazteei euskarazko irakurgaiak eskaintzeko gure xedearekin ere datoz bat itzuli ditugun zenbait literatur lan eta saiakera, bigarren hezkuntzan ikasten ari diren irakurle gazteei propio zuzendutakoak direnak. Horietako bat, saiakeren bilduman ere koka daitekeena, *Filosofia alabari azaldua* dugu, gazteei filosofiaren historia eta zentzua modu atseginean kontatzeko Roger-Pol Droit ikerlari frantsesaren idazlan laburra. Eta bigarren hezkuntzako gazteei ere zuzen-

tzen zaie Lola Gándararen *Kasu eman idu-sei* nobela, Zesarren garaiko erromatarren bizimodua eta giroa modu nobelatu batean ezagutzeko aukera ematen duena.

Beste alde batetik, gure argitaletxeak itzulitako obren katalogoan badugu sail bat, oso inportantea dena guretzat: poesia. Horren bidez, beti gutxiago direla jo izan den irakurle-multzo bati egiten diegu gonbitkeina: poesia-irakurleei. Poesiaren kasuan, argitalpen mugatuak egiten ditugu, inprimaketa laburrekoak, hau da, 250 ale baino gutxiagokoak, poeta baten obraren ikuspegi osatua ematen dutenak eta ele bitan eginak. Hala eman ditugu argitara Sylvia Plathen *Ariel eta beste poemak batzuk* —Íñigo Astizek itzulia—, Miquel Martí i Polen *Marta Maitea* eta Lois Pereiroren *Akabera-ko poesia amodioaz eta gaitzaz* —Joxemari Sestorainen eskutik— eta —Íñigo Roquek itzulirik— Fernando Pessoaen *Poemak pluralean*. Ele bitan direnez, poesia-irakurle amorratuak asebeste ditzakete horiek, jatorrizko testua eta itzulpena irakurtzen ahal dituztelako batera. Baina ele bitako argitalpenek erronka handiagoa ekarri itzultzaileentzat, eta horregatik, hain zuzen, bereziki inportantea da itzultzailearen presentzia eta gogoia bilduma horretan: itzultzaileek beraien proposatutako liburuak izaten dira, erabateko askatasunez itzuli eta apailatzen dituztenak. Horregatik, haietan, jatorrizko poemen hatsarekin bat, agerikoa izaten da itzultzaileek hats hori helarazteko baliatzen duten euskal tradizio literarioaren kutsua: euskal literaturaren tradizioan barna egingandako urratsak baliatuta euskarara dakarten egilearen arimaren xerka abiatzen dira itzultzaileak. Aipatu ditugun ezaugarri berezi

horiengatik, bilduma honek ez dauka alde zurririk; aurretik ekoizpen-plan finkatu bat, baina, bai, ordea, muga jakin batzuk (jada aipatu ditugunak), eta gero eta argiago taxutzen ari den ibilbide-orri berezko bat.

Labur bada ere, ezin ditugu aipatu gabe utzi haurrendako album ilustratuen itzulpenak; beste hizkuntzetatik euskarara itzulitako albumekin batera, hemengo egile batzuen kasuan gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen ditugu haien lanak (batzuk gaztelaniaz sortuak, eta beste batzuk euskaraz, maiz egile berak sortuak direlarik testuak eta ilustrazioak), ele bitako edizio berezietan. Hor ere, ez dugu bistatik galtzen irakurketaren eta literaturaren sustapena, ezta hemengo egileekin argitaletxeak duen konpromisoa ere.

Argitaletxearen ikuspegia itzulpengintzari buruz

Esan berri dugunez, gure argitaletxeek konpromiso agerikoa dauka itzulpenekin batera jatorrizko idazlanak argitaratzeko (ez bakarrik haurren albumei dagokionez, baizik eta oro har eta genero guztietan), eta bide horretatik jarraitzeko asmoa du.

Baina jatorrizko lanak zein itzulitakoak argitaratzen ditugunez, eta egileekin —idazle zein ilustratzaileekin— nahiz itzultzaileekin lan egiten dugunez, argi ikusten dugu guztiek, idazleek, ilustratzaileek eta itzultzaileek, dutela inportantzia handia obra bat argitara emateko orduan.

Itzultzaileetan, aniztasunaren aldeko apustua egin dugu: batzuk itzultzaile profesionalak dira, kasu batzuetan idazle ere direnak, eta badira bestelako ogibideetan arituta

ere itzulpengintzan eta literaturan eskarmentua eta ofizioa eskuratuak dituztenak. Argitaletxerako itzulpenak egin dituztenen zerrenda luzea da: Fernando Rey, Mikel Vilches, Angel Erro, Inma Errea, Itziar Diez de Ultzurrun, Alberto Barandiaran, Juanjo Olasagarre, Ana Morales, Miren Iriarte, Ipar Alkain... Ahaztu gabe poesiaz hitz egiterakoan aipatu ditudanak, Iñigo Astiz, Iñigo Roque eta Joxemari Sestorain alegia.

Itzultzaileei, askotan, guk egiten diegu idazlan konkretu bat itzultzeko proposamena, baina batzuetan ez da horrela, eta badira itzultzaileak guregana jotzen dutenak proposamen jakin batekin. Kasu batean zein bestean funtsezkotzat jotzen dugu harremanak eta komunikazioa errazak izatea, eta saiatzen gara ahalik eta malguen jokatzen.

Uste dugu beste kulturak eta kontatzeko bestelako erak gure kultura ekartzeko zereginen funtsezkoa dela itzultzaileen papera. Finean, egileen ahotsa ekarri behar dute gure hizkuntzara ahots horren bereizgarritasunei eutsiz eta gure hizkuntzaren eta gure kulturaren berezitasunak eta aberastasunak bazter utzi gabe.

Eta itzultzaileen garrantzia azpimarrazteko, hasieratik erabaki genuen haien izena liburuen azaletan jartzea. Erabakia hartu genuenean, pentsatu genuen ordua iritsia zela euskal itzultzaileen izenek toki bat edukitzeko egileen izenen ondoan. Azken buruan, liburu bat jende askok egindako artefaktu bat da.

Resumen

Para conocer el mundo, uno de los mejores vehículos es la literatura: con ella conocemos de primera mano las emociones de otras personas. Y en literatura la traducción adquiere mucha importancia porque nos ayuda a entender realidades expresadas en otras lenguas. Por eso, **denonartean** se ha propuesto emprender un nuevo camino mediante una colección de cuentos universales clásicos ilustrados puestos al alcance de un público lector amplio: jóvenes, personas que comienzan a adentrarse en la lectura literaria, entusiastas del libro ilustrado... Todo ello sin perder de vista el doble objetivo de entender el mundo que nos rodea y amar la literatura.

Résumé

La littérature est l'un des meilleurs moyens pour connaître le monde, en effet, elle nous permet de connaître directement les émotions et les expériences des autres. Par ailleurs, la traduction occupe une place très importante dans la littérature, car elle nous aide à comprendre les réalités exprimées en d'autres langues. Aussi, la maison d'édition **denonartean** s'est-elle engagée dans une nouvelle voie en publiant une collection de récits universels classiques, illustrés, collection destinée à un public ample et varié : les jeunes, les personnes s'initiant à la lecture littéraire, les fans des livres illustrés... Tout cela, sans perdre de vue le double objectif que l'équipe éditoriale s'est proposé d'atteindre, à savoir, faire connaître le monde où nous vivons et faire aimer la littérature.

Abstract

One of the best ways to learn about the world is by means of literature, through which we come to understand the emotions of others. In literature, translation holds a position of great importance because it helps us to understand realities expressed in other languages. The publishing house **denonartean** is therefore undertaking a new project: to publish a collection of universal classic stories, illustrated and accessible to a wide reading public — young people, people who are starting to delve into literary reading, fans of illustrated books, etc. — without losing sight of the double objective of promoting both an understanding of the world around us and a love of literature.